

A T Z O K O

# Andoain

*eta andoaindarrak*

17. zbk.

2000ko ekainaren 25a.

*Gerra ostea*



# URTE LATZAK GOSETE GORRIAN

**G**erra urteak latzak izan ziren Andoaingo herritarrentzat, baina gerra ostea ez zen samurragoa izan. Liskarren eta beldurraren ondoren, gosete izugarria sortu zen. Gerra sasoiaren itxita egon ziren saltokiak, eta ateak ireki zituzten gerra amaitzean. Baina hutsik zituzten apalak. Inon ez zen jatekorik. Larria zen egoera Andoaingo sendietan; okerragoa kaleko etxeetan, baserriekin alderatuta. Baserritarrek baratzak zituzten eta handik ateratako elikagaiak jaten zituzten. Kaletarrek, berriz, ez zuten ezer. Udalak errazionamendu-liburuskak banatu zizkien herritarrei, errazionatutako gaiak hartzeko. Baina liburuskek ez zuten arazoa konpondu, ezer ez baitzegoen inon.

40eko hamarkadaren hasieran izan zen gosete larriena, gorriak eta bi ikusi zituzten herritarrek, ahoratze-ko ezer ez zegoelako. Estraperloa egiten hasi ziren orduan, han edo hemen elikagaiak lortzeko asmoz. Estraperloan lan garrantzitsua egin zuen 'Trentxikik', trenari esker heltzen baitzen herrira jaki ugari. 50eko hamarkadaren hasieran hobera egin zuen egoerak eta lasaitu egin zen giroa. EEBBetatik laguntza heltzen hasi zen Marshall Planari esker. Ia Andoaingo etxe guztietan zuten jatekoa, nahiz eta sobranterik ez zen. Gabeziak arindu ziren heinean egin ziren Francoren erregimeneko lehen herri hauteskundeak, 1956an.

## GERRATIK GERRA OSTERAKO JAUZIA



Auxilio Socialaren egoitzan jaten Andoaingo haur batzuek.

Andoainen oparotasunean bizi ziren sendiak baziren gerra aurretik: Treku, Moleda, Unanue... Auto baka-  
rren batzuk ere baziren. Baina gerrak aldaketa sakonak ekarri zituen, eta gerra osteak gosete latza.

Gerra amaitzearekin batera sortu zen miseria Andoainen. 1941. urtetik aurrera hedatu zen gosetea, gure solaskideek azpimarratu dutenez. "Orduan hasi zen, baina 1950an

oraindik ere harrokeria handirik gabe bizi ginen", esan du Joxemari Olazabalek.

Jatekorik ez zenez, dendetan jaki gutxi zen salgai. Baina horiek saltzerakoan dendariak maiz hartzen zuten kontutan zein sendirentzat ziren. Joxepa Ormaetxeak azaldu du hori: "Nik Labordetarren etxean lan egiten nuen. Dendara joatean zain egoteko esaten zidaten, jatekoa salduko zidatela. Txi-

txarrain baserrian, berriz, gosez ginen".

Familia behartsuei jaten ematen zuten Auxilio Socialak. Hori Falanjearen erakundea zela adierazi dute gure solaskideek, eta bazkaltzen soilik ematen zutela. Miren Zarragak azaldu duenez, behin baino gehiagotan itzuli zen etxera ezer ahoratu gabe, egoitzaren aurrean iladan denbora luzea egin eta gero.

## PREMAZKO JAKIRIK EZ

Gizakiontzat premiazkoak diren jakiak urri ziren orduan. Ogirik ez zen, eta oliorik ere ez. Miguel Amasen arabera, ogi eza zen larriena. "Gehienak edo gutxienak baratza bazuen. Babarrunak, patata eta tomatea baziren soroetan, eta horiek jaten ziren". Roke Ansa bat etorri da Amasekin: "Baratza berriak sortu ziren orduan. Kaleko jendeak baratzak egin zituen lehenago otea eta sasia zegoen eremuetan. Gure etxe inguruan, Upategin, baziren hiru". Hau da, ogia lortzeko aukera zuena molda zitekeen ogiarekin eta baratzeo produktuekin, Roke Ansaren iritziz.

Garai hartan ogia oso gogorra zen ordea. Harria bezain gogorra, solaskideek zehaztu dutenez. Irina ezean, lekale mota ugari txikitu eta haiekin

egiten zen ogia, Iñaki Arregik azpimarratu duenez. Artoarekin ere egiten zen, noski. Okinek ontzi moduko batzuk sortu zituzten ogia egiteko, eta horregatik, ogiak biribilak ziren eta lodi xamarra. Bixente Olanok azaldu digu zergatia: "Errotan txikitutako artoa bildu egiten da. Baina lantegietan errodiloarekin egindakoa ez da biltzen, eskuetatik alde egiten du".

Zakurrek ere ez omen zuten jaten ogi hura, Mikela Ansak eta Patxi Irizarrek azaldu dutenez. Arregik anekdota bat aipatu du ogia zein gogorra zen azaltzeko: "Orduan esan zen, behin baserriar bat kalera jaitsi zela astoarekin eta astoa soka bati lotu ziola. Astoak saski bat zuen zama gainean eta ogiak saski barruan. Astoak jan egin zituen ogiak, gero ura edan eta



Miguel Amas

*"Gehienak edo gutxienak baratza bazuen. Babarrunak, patata eta tomatea baziren soroetan, eta horiek jaten ziren"*

lehertu egin zen". Egiatan gertatu ote zen ez dakiela gaineratu du Arregik.

Beharrak bultzatuta, bizi irauteko ahalak eta bi egindakoa dira gure solaskideak. Arregik, adibidez, gaztainak biltzen zituen Galardikotan. Gero, kalean erretzen zituen eta saldu. Horri esker lortutako diruarekin, aldiz, sagardoa erosten zuen.

## ERRAZIONAMENDUA

Produktu ugari zegoen errazionatuta, eta errazionamendu-liburuska bidez eskuratzen ziren. Esnea ez. Bai, ordea, olio, azukre, eltzekari, kafe eta tabakoa. Arregik beste batzuk ekarri ditu gogora, liburuska bidez jasotzen zirenak: algarroba, 'muelas' edo 'titos', boniattoa, baba-handia lehortuta, laranja azalak, aza zuztarrak, ilarrak, bainak, piku prentsatuak...

Jakiak prestatzeko oliorik ez zegoenez, beste gaiekin egiten ziren otorduak: gantza, esnegaina, sardin zaharrak... Azukrearen ordez, berriz, sakarina erabiltzen zen. Gosetea hartarainokoa zen, udalak baserrietatik produktuak hartzen zituela gero herritarrei banatzeko. Alhondigara eramaten ziren produktuak, handik herritarrei banatzeko. Baina makina bat alditan han pilatutako produktuak galdu egiten ziren eta herritarrei ez zitzaizkien banatzen. "Han ziren langileek zakuak pilatzen zituzten eta fermentatu egiten ziren. Hala gertatuta. Oria ibaira botatzen zituzten herritarrei banatu gabe", esan du Irizarrek.

Txitarrain baserrian behin gertatutako aipatu digu Ormaetxeak: "Gurera etorri ziren arto kilo batzuk eske, baina guk ez genuen artorik. Fernando Zalakain zen alkate eta hura etorri zen. Esan genion ez genuela artorik,



Amerikatik etorritako laguntza Alhondigak banatzen zuen Andoaingoan.



Joxepa Ormaetxea

*"Gurera etorri ziren arto kilo batzuk eske, baina guk ez genuen artorik. Fernando Zalakain zen alkate eta hura etorri zen. Esan genion ez genuela artorik, udalari emateko erosi egin behar genuela"*

udalari emateko erosi egin behar genuela".

Arregiren etxean morokilloa gosaltzen zuten. "Papila modukoa zen. Artoarekin egiten genuen. Eskuz errotan pasa, uretan jarri, sakarina bota eta lehortzen uzten zen. Gaina egiten zitzaion eta loditzean jaten genuen". Esnea baldin bazegoen, horrekin egiten zuten urarekin beharrean.

Babarruna ere urritu egin zen. Olazabalen etxean baba jaten zuten astean lauzpabost alditan. Babak zituen

zomorroak eta guzti ahoratzen zituzten gainera. Arregik badu anekdota bat zomorro horien inguruan: "Diru pixka bat osatzen genuenean baba jaten genuen. Igande arratsalde batean, afori-meriendan, baba jatea egin genuen. Hiru anaiok eta osaba itsua eseri ginen eta baba-handia jaten hasi. Zomorroekin saltzen zen. Martin anaiak plateraren ertzerara atera zituen zomorro guztiak. Denek baba bukatzean, zomorroak han zeuden Martinen plateraren izkinean. Besteek dena jan

## ERRAZIONAMENDU-LIBURUSKA

Errazionamendu-liburuska erakutsi behar zuen errazionamenduko produktuak erosi nahi zituenak. Familia bakoitzak kide kopuruaren arabera zituen liburuskak, eta kasu batzuetan —Loren Navarroren sendian— kupoiak ziren. Udalak banatzen zituen. Amasek esan duenez, gutxienez hilean bitan joaten ziren dendetara errazionamendu-liburuskekin jakia hartzera. Jakina, ikuskatzaileak egon behar zuen horretarako. "Ikuskatzaileak joaten ziren dendetara kontuak eskatzera: horrenbesteko kupoi dituzu eta horrenbesteko zaku banatu dituzu. Kontua eman behar zenuen zer saldu zenuen eta zein produktu zenituen", argitu du Arregik.

Zarragatarrak Rezola lantegira, Añorgara, joaten ziren errazionamendu-liburuskekin, aita han lan egiten baitzuen. "Bi ahizpa joaten ginen hilean behin tranbia hartuta. Dirua jusu-justu genuen garraiorako. Han jatekoa banatzen zigun emakumea oso ona zen, beti ematen zigun pixka bat gehiago. Bai pozik itzultzen ginela! Astoak bezala zamatuta etortzen ginen, baina izugarri pozik".

Errazionamendu-liburuska edukitzeak ez zuen ziurtatzen jatekoa izango zenik. Orduak egin behar ziren dendetako atarrietan zain, eta oso ohikoa zen txanda iristerako salmenta-gaia agortuta egotea. Arregik zehaztu du ilaran jartzeko ordua finkatu zuela




Miren Zarraga

"Bi ahizpa joaten ginen hilean behin tranbia hartuta Rezola lantegira. Dirua jusu-justu genuen garraiorako. Han jatekoa banatzen zigun emakumea oso ona zen, beti ematen zigun pixka bat gehiago. Bai pozik itzultzen ginela!"

genuela ikustean, hark goilara hartu eta jan zituen zomorroak".

Tortilla ere jaten zuten orduan andoaindarrek. Ez arraultzekin egin-dakoa, tortilla-bejetala izenekoa baizik. Gure solaskideek azaldu dute hauts batzuekin egiten zela. Hautsa esnearekin nahasten zen, esnea zegoenean. Hori ezean ura botatzen zioten. Dena nahastu eta sartagian frijitzen zen. Olazabalen iritziz, oso zapore txarrekoa zen tortilla-bejetala. Baina jan egin behar!



Iñaki Arregi

"Martin anaiak plateraren ertzerara atera zituen zomorro guztiak. Denek baba bukatzean, zomorroak han zeuden Martinen plateraren izkinean. Besteek dena jan genuela ikustean, hark goilara hartu eta jan zituen zomorroak"

C. N. S.

**CENTRAL NACIONAL SINDICALISTA**  
DE  
**FALANGE ESPAÑOLA TRADICIONALISTA y de las JONS**

RACIONAMIENTO ESPECIAL PARA PRODUCTORES DEDICADOS A PAÑAS DE GRAN DESGASTE FISICO

Delegación Local de Andoain Núm. 37

Empresa o artesano D. Fabrice Subijana

Nombre y apellidos Sebastian Ameta

VALE POR LOS ARTICULOS QUE A CONTINUACION SE EXPRESAN:

Acete Gramos	Leche Gramos	Patatas Gramos	Jabón Gramos	Café Gramos	Azúcar Gramos	Habas Gramos	Garbanos Gramos
250	1kg	7kg	250		150	500	500

Establecimiento suministrador Sda. Antropología de Andoain de 1942

Recibi, L. PRODUCTOR, S. Jureta

EL DELEGADO SINDICAL LOCAL, Andoain

Gerra osteko errazionamendu-liburuska bat.

Andoaingo udalak, lerro luzeak ikusita. Izan ere, dendak goizeko 08.00etan zabaltzen ziren eta herritarrak ilaran jartzen ziren gauerdian. "Guk harategia etxe aurrean genuen eta ikaragarriko ilarak egiten ziren. Turistak ere etortzen ziren eta argazkiak ateratzen zituzten. Horregatik, udalak hori moztu egin zuen eta lerroan egotea galerazi".

Udalak eskuhartu ondoren, goizeko 06:00ak baino lehen inork ezin zuen ilaran jarri. "Ikuskizuna oso polita izaten zen. Gu mutilkoskorak ginen eta gogoratzen naiz nola Elizako kanpaiek goizeko 06:00ak jotzean eskaratz guztietatik ateratzen zela jendea. Lehena go ezin zen, goardia zibilak ibiltzen ziren eta", azpimarratu du Arregik.

Katua ere jaki ona zen orduan. Gaur egun, katua jaten duenak jakin-minagatik egingo du. Baina gerra osteko garaietan beharrak bultzatu zituen herritarrak katua platerean jartzera. Arregik behin baino gehiagotan dastatu zuen katuaren zaporea: "Etxe atzean patioa genuen eta katu ugari ibiltzen ziren han. Zepoak pres-



Iñaki Arregi

Gu mutilkoskorak ginen eta gogoratzen naiz nola Elizako kanpaiek goizeko 06:00ak jotzean eskaratz guztietatik ateratzen zela jendea denden aurrean ilaran jartzeko"

tatzen genituen haiek harrapatzeko. Kaxak jartzen genituen txotxekin eutsita eta soka bat gure eskuetara genuela. Katua barruan zegoenean sokatik tira egiten genuen eta kaxan harrapatuta geratzen zen. Katua hil egiten genuen, gero larrutu eta jan".

Arraina errazionamendutik libre zegoen. Arrain-saltzaileak kalez kale ibiltzen ziren: Otegi, Otero, Karmen... Angulak ere igoal saltzen zituzten, gaur egungo preziorik ez zuten eta. Zapoa eta meroa inor gutxi nahi izaten zuen, Olanok azaldu duenez. Katu-arraina, berriz, hor nonbait. Bokarta,

itsas aingira eta bisigua gustora jaten ziren. Irizarrek esan duenez, 20 txitxarro saltzen ziren duroan.

Barboa eta aingira ibaian arrantza eginez hartzen zuten. "Joxerramoneko atzean jarri genuen kordela anaiak eta

biok. Kordela atera eta kilo eta erdiko barbua hartu zuen. Gero Joxerramonen oiloak kosk egin zion arrainari eta hura ere harrapatu egin zuen anaiak. Jakina, oiloa ordaindu behar izan zuen gero", adierazi du Arregik.

Tabakoa errazionatuta zegoenez, erretzen ez zutenek saldu egiten zuten tabakoaren errazionamendu-liburuskak.

Baina Andoainen ere lantzen zen tabakoa. Irizararrei 118 kilo tabako atzeman zien Goardia Zibilak.

## GAIXOTASUNAK

Gosetearen ondorio nabarmenena gaixotasunak izan ziren. Gazte hil zen jende asko tuberkulosiagatik, Olazabalek argitu duenez. Gure solaskideek esan dute eritetxe bat bazela Andazarreten. Gaixotasunak ugaltu egin ziren eta horiei aurre egiteko antibiotikorik ez zen, Olazabalek zehaztu duenez. Penizilina estraperloan heldu zen Andoainera lehenengo aldiz, baina ordurako jende asko hil zen. Zarraga penizilinari esker osatu zen, 18 hilabete tuberkulosiarekin egon eta gero. "Joxe Mari Iriarte paktikanteak eman zidan niri".

"1945ean ekarri zuten lehenengoz penizilina. Ni gogoratzen naiz nola eta



Labordeko langileei osasun azterketa egiten.



Joxe Manuel Erkizia

"1945ean ekarri zuten lehenengoz penizilina. Ni gogoratzen naiz nola eta nork saldu zuen. Estraperloan etorri zen. Kaxa batzuen barruan egoten zen penizilina, izotz puskekin"

nork saldu zuen. Estraperloan etorri zen. Kaxa batzuen barruan egoten zen penizilina, izotz puskekin", argitu du Joxe Manuel Erkizia.

Tuberkulosiarekiko beldurra handia zen gerra ostean, Arregik azpimarratu duenez. Horren adibide da Laborde lantegian osasun azterketa egiten zitzaizela langileei urtero.

Gaixotasunen inguruan, istorio ugari zabaldu ziren, egia edo gezurra ziren ziurtatu gabe. Olazabalek azaldu du horietako anekdota bat: "Titos' edo 'muelas' lekale lehorr bat zen. Hori janda elbarri geratu zirenak asko zirela esan zen orduan". Babak egunero jatea ere kaltegarria zelako ustea oso hedatuta zegoen garai hartan.

## ESTRAPERLOA

Estraperloari bide egin zion jaki urritasunak, eta urritasun hori pixka bat arindu zuen estraperloak. Batik bat, 'Trentxiki' bidez egin zen estraperloa. Gure solaskideek argitu dute nola egiten zen. Iruñetik Amarara arteko bidea egiten zuten trenak. Andoaingo herritarrek tratuak egiten zituzten trentxikiko makinari, sugin edo interbentoreekin: horiek produktuak erosten zituzten Nafarroan eta trena Andoainera heltzean adostutako gunean botatzen zituzten. Tratua egin zuten andoaindarrek jasotzen zituzten produktuak, ordu zehatzetan. Izan ere, andoaindar guztiek bazekiten trena zein ordutan igarotzen zen herritik.

Trentxikitik botatuko zakuz beteta egoten zen Txitxarrain baserriko ukuilua. Ormaetxeak esan zuenez, herritarrek hara eramaten zituzten saldu aurretik. Eta ukuilua elikagaiez beteta egon arren, baserriko bizilagunek ez zuten jatekorik.

Estraperloa egiten harrapatutakoari isuna jartzen zitzaion. Olazabalek azaldu du du pasadizo bat: "Iñaki apaiza hiruzpalu zaku-artorekin bazetorren Ziakotik Kaletxikin gora. Kaletxiki goian zen orduan Goardia Zibilaren koartela, eta koartelaren aurrean zaku bat askatu zitzaion. Artoa aldapan beheara joan zen". Goardia zibilak ez ziren ohartu eta Iñakiri ez zitzaion ezer pasa.



Joxemari Olazabal

"Iñaki apaiza hiruzpalu zaku-artorekin bazetorren Ziakotik Kaletxikin gora. Kaletxiki goian zen orduan Goardia Zibilaren koartela, eta koartelaren aurrean zaku bat askatu zitzaion. Artoa aldapan beheara joan zen"

Olazabalen aita okina zen eta egunero joaten zen Tolosara ogia saltzera. "Buelakoan baba ekartzen zuen, baina


behin babak saldu zizkiona harrapatu zuten 300 kilorekin. Goardia Zibilak izugarritzko isuna jarri zion". Igoal 10.000 pezetako isuna jarri ohi zen, bi urtetan irabazitakoa alegia.

Adunako zubi parean bazegoen errota bat. Itxasondon zegoela esan du Erkiziak. Irina erosten zuten han. "Garai hartan Martin Agerrebordakok eta biok makina bat jarri genuen fideoa egiteko. Potxolok ekartzen zigun irina eta Antzizarreko inguruan botatzen zigun trenetik. Bonba zaharreen fideoa egiten genuen eta gero saldu. Dirua irabazten genuen fideoa salduz", zehaztu du Erkiziak.

Estraperloan ibilitakoei ziria sartzea ez zen ezohikoa. Olazabalek aipatu ditu aitari gertatuko bi jazoera. "Dendari batek esan zion tratu on bat bazuela olioaren inguruan. Migel Hui-ziri karroa hartu genion eta olio bila joan ginen. Erosleari hartu genizkion 200 bat litro, karroan igo ginen eta etxera etorri. Engraxi dendariagana jo genuen, baina tratua egin aurretik lo egin behar zuela esan zion. Jaiki ondoren joan zen Engraxigana eta

hara ze atseka-bea! Engraxik esan zion lehen litroa bakarrik zela olioa, bestea ura zela". Estraperloaren bidez sosak lortzea ez zela erraza gaineratu du Olazabalek.

Beste behin, Olazabalen aita Pasai San Pedro-ra joan zen sakarina eta Farias puroak lortzeko. "Villabonako Izkiña tabernakoa eta aita joan ziren hara. Tratalaria azaldu zen eta aitak eta Izkiñakoak dirua eman zioten. Tratalariak erantzun zien berehala ekarriko zizkiela sakarinak eta puroak, eta txalupa hartu zuten Pasai San Juan aldera", azpimarratu du Olazabalek. Jakina, tratalaria ez zitzaizen agertu gehiago. Han geratu ziren Olazabalen aita eta Izkiñakoa, dirurik eta purorik gabe.



Trentxikik Andoain zeharkatzen zuen Iruñetik Donostiara bidean.



Joxemari Olazabal

"Dendari batek aitari esan zion tratu on bat bazuela olioaren inguruan... Erosleari hartu genizkion 200 bat litro, karroan igo ginen eta etxera etorri... Gero Engraxi dendariak esan zion lehen litroa bakarrik zela olioa, bestea ura zela"

## AMERIKARREN LAGUNTZA

1941ean sortu zen gosete handia. Gure solaskideek azaldu dutenez, 1942 eta 1943 urteak izan ziren larrienak, baina urteak joan ahala gutxitzen joan zen gosetea. Urte batzuk geroago abian jarri zen Marshall Plana. 1953. urtetik 1960ra arte inguru iraun zuen planak, Olazabalek zehaztu duenez. Planaren arabera, EEBBetatik etortzen ziren elikagaiak. Alhondigan pilatzen ziren eta handik banatzen zitzaizkien herritarrei.

Laguntza hori nabarmen antzeman zuten Andoaingo herritarrek. Arregik esan du EEBBetatik irina, esne-hautsa, bidaltzen zutela esnea egiteko. "Garbigailuak hasi berriak ziren orduan eta horra botatzen genuen hautsa. Irin

kantitatearen arabera botatzen genuen ura. Irabiatu egiten zen eta apar bat ateratzen zuten. Hurrengo egunerako asentatuta zegoen aparra eta esnea bihurtzen zen".

Orduan Alhondigan lan egiten zuten Arregik boluntario gisa. Hark azaldu digu produktu banaketa nola egiten zen: "Familiak sailkatu egiten ziren zuten diru sarreraren eta senide kopuruaren arabera. Familia buruak lan egiten zuten lekura jotzen genuen, horren irabazien agiria jasotzeko. Zenbait enpresetan gezurra esaten zigiten, eta benetan irabazten zuena baino gutxiago adierazi".

Esne-hautsaz gain, beste elikagai batzuk ere etorri ziren Andoainera,

gure solaskideek argitu dutenez: gazta bi litroko latatan, esne-kondentsatua, gurina, babarrunak, jantzi bakarren batzuk eta haragi kongelatua. Azken produktu hori, ordea, harategietan saltzen zen; ez zen banatzen.



Iñaki Arregi

"Alhondigak laguntza eman aurretik, familiak sailkatu egiten ziren zuten diru sarreraren eta senide kopuruaren arabera. Familia buruak lan egiten zuten lekura jotzen genuen, horren irabazien agiria jasotzeko"

## MAKIAK

Makia gerrilla moduko bat ziren. Erresistentziako kideak ziren eta errepublikanoak, Olazabalek esan duenez. Batik bat, kanpotarrak ziren. "Franco botako zuten ustea zuten II. Mundu Gerran ondoren ere. Hori zen Makien ametsa. Euskaldunak baino gehiago kanpokoak ziren ordea". Zarragak azaldu du izebak hari emandako azalpena



Joxemari Olazabal

"Franco botako zuten ustea zuten II. Mundu Gerran ondoren ere. Hori zen Makien ametsa. Euskaldunak baino gehiago kanpokoak ziren ordea"

Makiei buruz: "Mendian ibiltzen diren gizonezkoak dira" esan zidan behin".

Mugan bi aldeetan mugitzen ziren Makia, eta Andoaingo makina bat gizonezko gaztek egin zuten soldadutza mugan.

Makien mugimenduak porrot egin zuela argitu du Amasek, "ez baitzuten babesik".

## 'HABLE EN CRISTIANO'

Euskararen erabilera oso murriztuta zegoen aginteko estamentuetan. Gauza bera gertatzen zen euskal izenekin, Arregik esan duenez. "Auzitegira joan nintzen jaiotza agiria eske. Zein izen nuen esan zidan hango idazkariak eta nik Damas Iñaki erantzun nion. Haren esaldia izan zen 'eso de Damas Iñaki paso a la historia'". Euskal izena

borratu egin zuen idazkariak eta Ignacio jarri gainetik.

Zarragak ere badu tankerako pasadizo bat. Egunpasa Azpeitiara joan omen zen behin, eta lagun batek Miren ozen oihu egin. "Jesuita batek entzun zuen eta lagunari esan zion Miren zer zen. Euskal izena zela esan zionez, jesuitak adierazi zuen ez zela kristau

izena". Orduan hedatu zen 'Hable en cristiano' zoritxarreko esaldi famatua.

Ikastetxeetan galerazi egin zuten euskaraz mintzatzea eta idaztea. Olazabalek esan du bi erakunderi esker iraun zuela euskarak gerraren ostean: ikastolak eta Eliza. Noski, erakundetatik at familia izan da euskararen euskarririk garrantzitsuenak.

## ERAKUNDE OFIZIALAK

Iñaki Arregi eta Joxemari Olazabal zinegotziak izan ziren Andoaian, Francoren sasoiko urteetan. Arregi udalean egon zen 1961etik 1967ra; Olazabal 1964tik 1971era bitarte. Erregimeneko lehen herri hauteskundeak egin ziren 1956an, gure solaskideek azaldu dutenez. Bigarren herri hauteskundeak lau urte geroago egin zirela zehaztu du Arregik.

Boz haiek ez ziren gaur egungoak bezalakoak. Orduan ez zen alderdi politikorik udalean, hiru tertzio baizik: Familiaburuen Tertzioa, Sindikatuen Tertzioa eta Disposizio Libreko Tertzioa. Hiruna ordezkari zituen bakoitzak. Guztira, 9 zinegotzi zituen Andoaian. Hala izan zen 1975era arte, Franco hil arte.

Hiru tertzioetako ordezkariak osatzen zuten udala. Disposizio Libreko eta Sindikatuen tertzioetako kideak ez zituzten herritarrek aukeratu. "Gobernadoreak izendatzen zuen alkateta. Sindikatuetakoa Tertziokoak, berriz, sindikatu guztietako batzordekideek hautatzen zituzten. Familiaburuen Tertziokoak herritarrek aukeratu zituzten, eta bi tertzio horietako ordezkariak eta alkateak erabakitzen zituzten Disposizio Libreko kideak argitu du Olazabalek.



Iñaki Arregi

"1960an lauzpabost bikote azaldu ziren Familiaburuen Tertzioko bi ordezkari hautatzeko. Gogoratzen naiz independenteen tertziotik aurkeztu nintzela; EAJtik baziren bi. Karlistetatik beste bi...Hauteskunde-kolegioak eratu ziren interbentore eta guzti"



Zinegotziak 1963ko ekitaldi batean. Iñaki Arregi da ezkerretik hasita bigarrena, Eugenio Ariztimuño zortzigarrena eta Emilio Truchuelo bederatzigarrena, besteak beste.

Arregiren hitzetan, Familiaburuen Tertzioko ordezkariak herritarrek aukeratu zituzten 1960an. "Lauzpa-bost bikote azaldu ziren Familiaburuen Tertzioko bi ordezkari hautatzeko. Gogoratzen naiz independenteen tertziotik aurkeztu nintzela; EAJ ingurutik baziren bi, Karlistetatik beste bi...Hauteskunde-kolegioak eratu ziren interbentore eta guzti".

Orduan "saltsa" izan zela gogora ekarri du Arregik: "EAJko ordezkari eta independente batzuk kendu egin zituzten zerrendetan ez zeudelako. Haserreak izan ziren hautagaien artean. Independenteen artean bakarrik geratu nintzen, nire bikotea zerrendan ez zegoelako eta hautagai izan ezin zuelako. Orduan elkartu egin ginen EAJkoak eta ni". 1.326 herritarrek zuten boto eskubidea, baina 781 lagunek eman zuten botoa. 500 bat herritar ez ziren inguratu hauteskunde-kolegioetara.

Zinegotziek eskuak nahikoa lotuta zituzten ordea. Erabakitzeko ahalmena murriztu zuten. "Gobernadoreak

eta alkateak zuten aginte osoa, edo ia osoa. Guk aurre egiten genuen batzuetan, baina zereginik ez genuen", esan du Arregik. Horrekin bat etorri da Olazabal: "Gu oposizioa ginen. Aparato politiko eta ekonomikoak jan egiten gintuen. Zerbait egin nahian ibiltzen ginen, baina beti arrastaka".

Alderdi politikoko legeztatu aurretik, Andoaian mugimendu bat sortu zen: Auzolan. 1974an izan zen hori. "Horren estatutuak onartzera joan ginen Astudillo eta biok", esan du Olazabalek. Herritarrek osatutako mugimendua zen. "Behin batek galdetu zidan ea gure atzean nor zegoen eta erantzun nion ez zegoela alderdirik", zehaztu du.

Tankerako mugimenduak sortu ziren Gipuzkoako beste lekuetan. "Mugimendu guztiek batzar bat egin zuten Zarautzen. Askatasuna etortzean, ordea, dena desegin zen. Alderdi politikoei aprobetxatu zuten herritarren mugimenduaren indarra", adierazi du Olazabalek.

## Hainbeste ale, hainbeste kale

'Atzoko Andoain eta andoaindarrak' argitaratzen hasi ginenetik egin dugu hankasartze bat baino gehiago. Eta bilduma hemen bukatzera doanez, zuzendu gabe geratu diren guztiak konpondu nahi ditugu, guk atzeman ditugunak behinik-behin. Hona hemen zuzenketa guztiak, ondorengo belaunaldikoeak, Andoaingo historia txikia eta bertako protagonistak behar bezala ezagu ditzaten, akatsik gabe.

### 1go zenbakia

Eskola kontuetaz ari ginelarik, 4. orrialdean Ramon Esnal idatzi genuen. Ramon San Miguel zen izen zuzena.

### 4. zenbakia

Santakrutz jaiei buruz idazterakotan ere nahastu genituen izen batzuk. 3. orrian, Lazaro Otaegi jarri genuen, eta Otegiz ari ginen. Juantxo Arregi jarri genuen eta Agirre behar zuen, eta Juan Bautista Zunba beharrean, Zunda.

### 5. zenbakia

Auzoei buruzko aldizkarian herriko inguru bakoitzak bere koadrila eta kapitanak bazituela ekarri genuen gogora. 3. orrian Etxeberrietakoei buruz ari ginela, Juan Jose Potxolo aipatu genuen Juan Joxe Zabala beharrean. Zenbaki horretako 6. orrian, berriz, Trianon bota egin zutela esan genuen; etxe hura ez zuten bota, erreformatu baizik.

### 7. zenbakia

Erljioaz egin genituen zenbakien artean bigarrenean esan genuen Luistarren zinta zuria zela. Barka, zuriurdina zen.

### 9. zenbakia

Etzeko lanetaz ari ginela, Upategin mentak labean sartzen zirela idatzi



Urte eta erdian solaskide izan ditugun andoaindar berritsuak eta proiektu honetan parte hartu dugun gainerantzekoak bazkaritan bildu ginen joan den ekainaren 3an. Borda jatetxeak prestatu zituzten bazkari goxoak, solasak eta bazkalosteko kantu saioak eman zitoten agurra 1998ko gabonetan abiatu genuen abentura polit honi.

genuen. Hori disparatea!, labean sagarrak sartzen zituzten, eta mentak logeletan usain ona uzteko erabiltzen zituzten.

### 12. zenbakia

Kirolei buruzko zenbaki hartan Felix Arratibel idatzi genuen 2. orrialdean. Ez zen Felix, Felipe baizik. Idatzi genuen baita ere hura ibiltzen zela txanpain botilarekin pilotan. Abilezia hori, ordea, Don Alexandrorena zen.

### 14. zenbakia

4. orrian hankasartze kurioa egin genuen Algodonerari buruzko kontakizunekin ari ginela. Argindarra transistorez mugitzen zela idatzi genuen. Jakina, trasmisioaz mugitzen zen eta ez transistorez.

### 15. zenbakia

Lantegiei buruzko bigarren zenbakian ere egin genituen hankasartze batzuk. Iñaki Arregik 30 urte egin zituen Laborden, ez 43. Herminia Laborde, berriz, Don Enriqueren alaba zen; ez Don Manuelena.

### 16. zenbakia

Gerra zibilari buruzko azken zenbakian hutsegite batzuren batzuk egin genituen. Esan genuen herriko zubiak naparrek bota zituztela. Ez zen horrela izan, noski: gorriek bota zituzten naparrei bidea oztotatzeko. Esan genuen baita ere, Kaletxiki ez zutela naparrek mendean hartu; bada ondo zehaztu nahi dugu horrareraino iristen zela naparren frontea. Idatzi genuen baita ere Urnietan kanpaiak jotzen hasi eta soka hautsi zela; haren ardatzak egin zuen huts ordea. Herrian egin ziren sakeoak, azkenik, ez zituzten militarrek egin, herritarrek baizik. Beste alde batetik, zuzenketetatik aparte, gure solaskideek gogoratu nahi izan digute eskuindarrek ere lagundu zituztela andoaindarrak Gerra Zibilean. Loren Navarrok, esate baterako, Fernando Zalakain aipatu du; bere aita hari eskerrak atera zuten Santoñako kartzelatik Burgoskora.



Manuel Larramendi  
Kultur Bazkuna



Andoaingo Udaleko  
Euskara Lansaila



Andoaingo Udala



Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailordetzaren diru laguntzaz, Andoaingo Udalak ordaindutako argitalpena

**Argitaratzaileak:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna Andoaingo Udaleko Euskara Lansailaren dirulaguntzaz. **Zuzendaritza:** Jone Larrañaga. **Erredakzioa:** Agurtzane Ormaetxea **Maketazioa:** Eva García. **Argazkiak:** Udal artxiboa. **Inprimaketa:** Sortu grafikagintza (Zizurkil). **ISSN:** 1139-7497 **Lege gordailua:** SS-1594/98. **Tirada:** 3.000 ale.